PATRONATO DE CULTURA
Zizur Mayor

KULTUR PATRONATUA
Zizur Nagusia

# NORMATIVA DE ORGANIZACIÓN Y UTILIZACION DE LA CASA DE CULTURA DE ZIZUR MAYOR

## Cap. 1. DEFINICION:

1.1 La Casa de Cultura de Zizur Mayor es municipal y corresponde la responsabilidad de su uso y utilización al Ayuntamiento de Zizur Mayor. Nace con el objetivo prioritario de servir como cauce de participación y punto de referencia sociocultural para los habitantes de Zizur.

Asimismo, la Casa tratará de implicarse dentro de la perspectiva comarcal. En este sentido se intentará dar respuesta a planteamientos que pudieran surgir desde este ámbito territorial.

1.2 El Ayuntamiento de Zizur Mayor a través de su alcalde, delega en el Patronato de Cultura la gestión de la citada Casa de Cultura, así como la responsabilidad que pudiera corresponder en la organización, gestión y seguimiento de cuantas actividades, cursos y espectáculos se desarrollen dentro y en el entorno del edificio.

1.3 El Coordinador Cultural actuará como Director del Centro y será el responsable técnico a todos los efectos, de la gestión, puesta en funcionamiento y seguimiento de la actividad que se lleve a cabo y entre otras, estas serán sus funciones con relación a la Casa de Cultura:

- Responsable de cuidar y mantener el orden de los locales y hacer cumplir la normativa dispuesta para su uso.
- Coordinar los grupos y colectivos que puedan solicitar y utilizar los servicios y dependencias de la Casa de Cultura.
- Dar acogida a cuantas propuestas de utilización de la Casa se presenten, orientándolas y en su caso, elevar a la Junta de Patronato dichas peticiones.

## Cap. 2. HORARIO:

2.1 La Casa de Cultura permanecerá abierta habitualmente en base al siguiente horario:

- **De Septiembre a Junio:**
  - De Lunes a Viernes, de 9:00 a 22:00
  - Sábados, de 10:00 a 14:00 y de 17:00 a 21:00
  - Domingos y festivos, de 12:00 a 14:00
- **Julio y Agosto:**
  - De Lunes a Viernes, de 8:00 a 15:00

2.2 El Patronato de Cultura, a través del Director del Centro, podrá variar el citado horario según las necesidades que planteen las diversas actividades que se pudieran organizar.

# ZIZUR NAGUSIKO KULTUR ETXEAREN ANTOLAKETARI ETA ERABILPENARI BURUZKO ARAUDIA

## 1. kap. DEFINIZIOA:

1.1 Zizur Nagusiko Kultur Etxea udalarena da eta bere erabilpenaren eta antolamenduaren erantzukizuna Zizur Nagusiko Udalari dagokio. Zizur Nagusiko biztanleen partehartzeko bidea eta gune soziokulturala izatea helburu nagusia izanik sortu da.

Era berean, eskualdean txertatzen saiatuko da Etxea, baita, hortaz, esparru horretan sor daitezkeen planteamenduei erantzuna ematen ere.

1.2 Zizur Nagusiko Udalak, alkatearen bitartez, Kultur Patronatua eskuordetzen du Kultur Etxearen eraikinaren barnean eta inguruan izanen diren jarduera, ikastaro eta ikuskizunen antolaketan, kudeaketan eta jarraipenean egon litekeen erantzukizunerako.

1.3 Kultur koordinatzailea zentroko zuzendari arituko da eta jardueren kudeaketa, abian jartze eta segimenduaren erantzule teknikoa izanen da ondorio guztietarako eta, Kultur Etxeari dagokionez, hauek izanen ditu egitekizunak, besteak beste:

- Lokalen ordena mantentzea eta berauek erabiltzeko araudia betearaztea.
- Kultur Etxeko zerbitzu eta guneak eskatu eta erabiltzen ahal dituzten talde eta kolektiboak koordinatzea.
- Kultur Etxea erabiltzeko egiten diren proposamenak jaso, bideratu eta, hala behar denean, Patronatuko batzordeari helaraztea.

## 2. kap. ORDUTEGIA:

2.1. Kultur Etxea honako ordu hauetan egonen ohi da zabalik:

- **Irailetik ekainera bitartean:**
  - astelehenetik ostiralera: 09:00etatik 22:00etara.
  - larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.
  - igande eta jaiegunetan: 12:00etatik 14:00etara.
- **Uztailean eta abuztuan:**
  - astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 15:00etara.

2.2 Kultur Patronatuak, zentroko zuzendariaren bitartez, antola daitezkeen ekitaldien beharren arabera, ordutegia aldatzen ahal izanen du.

## Cap. 3. ACTIVIDADES:

3.1 Las actividades a desarrollar serán fundamentalmente, de ámbito cultural, entendiéndose como tales las siguientes:
- Cursos, charlas o conferencias de carácter sociocultural y educativo.
- Actuaciones teatrales o de danza.
- Ensayos de grupos de música, teatro, danza y colectivos de ámbito cultural.
- Audiciones y conciertos.
- Proyecciones y audiovisuales.
- Exposiciones.
- Biblioteca General.
- Biblioteca Infantil.

3.2 Todas las actividades descritas anteriormente, que no estuvieran encuadradas dentro del programa municipal, contarán para su desarrollo con la aprobación inicial del Director del Centro.

3.3 Cualquier otra actividad que no se encuadre dentro de los apartados señalados en el punto 3.1, no se contemplará como prioritaria y para llevarse a cabo, deberá solicitar por escrito la utilización de cualquier espacio de la Casa. Este artículo hace referencia expresa a las reuniones vecinales.

3.4 En cuanto a la actividad de partidos o grupos políticos, éstos deberán expresar por escrito la solicitud de uso, derivándose esta a la sala polivalente del edificio consistorial. En el caso de que no fuera posible llevarse a cabo la actividad en dicha sala, se posibilitará el uso de un espacio en la Casa de Cultura.

3.5 El Ayuntamiento dispondrá del patio de la Casa de Cultura para la celebración de enlaces matrimoniales, previa solicitud.

Durante las campañas electorales se podrá disponer de la Casa de Cultura para la celebración de actos políticos.

## Cap. 4. USUARIOS:

4.1 Se define como usuarios de los servicios de la Casa de Cultura, a cualquier persona que acuda como espectador, lector, participante de cursos y demás actividades que pudieran desarrollarse en la Casa.

4.2 Son obligaciones de los usuarios:
- Respetar los horarios establecidos al efecto.
- Respetar los muebles allí depositados y hacer buen uso de los mismos.
- Utilizar con corrección el equipamiento que dispone la Casa de Cultura.
- Respetar el orden y limpieza del local.
- Obedecer las indicaciones que pudiera hacer el responsable/s de los locales.

4.3 El uso indebido de los locales y el incumplimiento de lo dispuesto en el artículo 4.2, podrá ser motivo de sanción.

## 3. kap. EKITALDIAK:

3.1 Burutuko diren ekitaldiak kultur alorrekoak izanen dira gehienbat, hau da:
- Ikastaro eta hitzaldi edo konferentzia soziokultural eta hezigarriak.
- Antzerki edo dantza saioak.
- Musika, antzerki eta dantza taldeen eta kultur alorreko kolektiboen entseiuak.
- Entzunaldiak eta kontzertuak.
- Proiekzioak eta ikus-entzunezko saioak.
- Erakusketak.
- Liburutegi orokorra.
- Haurren liburutegia.

3.2 Arestian aipaturiko ekitaldiek, udal-programaren barruan kokaturik ez baleude, gauzatuak izateko, zentroko zuzendariaren hasierako onespena izan beharko dute.

3.3 3.1. puntuko zerrendan sartzen ez den bestelako edozein ekitaldik ez du lehentasunik izanen, eta, burutu ahal izateko, Etxeko zeinahi tokiren erabilpena idatziz eskatu beharko da. Artikulu hau auzoen bilerei dagokie zehazki.

3.4 Alderdi edo talde politikoen jarduerari dagokionean, hauek erabileraren eskaera idatziz aditzera eman beharko dute, aipatu eskaera udaletxeko erabilera anitzeko gelara bideratuz. Aipatu gelan jarduera egitea ezinezkoa balitz, Kultur Etxeko lokal bat emango die erabil dezaten.

3.5 Udalak, Kultur Etxeko patioa erabiltzea izanen du aldez aurretik eskaturiko ezkontzak egin ahal izateko.

Hauteskunde kanpainetan Kultur Etxea erabili ahal izanen da ekitaldi politikoak egiteko.

## 4. kap. ERABILTZAILEAK:

4.1 Kultur Etxeko zerbitzuen erabiltzailetzat bai ikusle bai irakurle zein ikastaroetan nola beste ekitaldietan partehartzaile gisa bertaratzen den lagun oro hartuko da.

4.2 Hona hemen erabiltzaileen betebeharrak:
- Erabakiriko ordutegiak errespetatzea.
- Bertan diren altzariak errespetatu eta egoki erabiltzea.
- Kultur Etxeko azpiegitura egoki erabiltzea.
- Lokalaren ordena eta garbitasuna errespetatzea.
- Lokalen arduradunak/ek ematen ditu(zt)en aginduak betetzea.

4.3 Lokalak behar ez bezala erabiltzea eta 4.2 artikuluan xedaturikoa bete ez izatea zigortzeko arrazoi izan daitezke.

PATRONATO DE CULTURA
Zizur Mayor
KULTUR PATRONATUA
Zizur Nagusia

4.4 Estas sanciones serán impuestas por la Junta Rectora del Patronato de Cultura a través del preceptivo informe emitido por el Director del Centro. La citada Junta calificará la falta e impondrá la correspondiente sanción.

4.5 Cualquier otra falta que se entienda como no grave, será resuelta por el propio Director del Centro con conocimiento del Presidente del Patronato de Cultura.

## Cap. 5. TIPOLOGÍA ESPACIOS:

5.1 En la Casa de Cultura podemos distinguir varios tipos de espacios, agrupados por sus características en niveles:

- **NIVEL1: SERVICIOS PERMANENTES**
  - A. Areas de Administración:
    - Conserjería y gestión.
    - Juzgado de Paz.
  - B. Biblioteca Pública:
    - General.
    - Infantil.
  - C. Bar-Cafetería.
- **NIVEL 2: ESPACIOS DE USO EXCLUSIVO**
  - A. Sala de reuniones.
  - B. Sala C: Taller de Pintura.
- **NIVEL 3: ESPACIOS DE USO ESPECIFICO**
  - A. Anfiteatro.
  - B. Sala de Exposiciones.
- **NIVEL 4: ESPACIOS POLIVALENTES**
  - A. Sala AB.
  - B. Sala D.
  - C. Sala E.

## Cap. 6. UTILIZACIÓN: Criterios de Cesión y Uso

6.1 Será responsabilidad del Director del Centro, la programación y, en su caso, utilización de las dependencias de la Casa de Cultura.

6.2 Se establecen las siguientes condiciones para la cesión de espacios en la Casa de Cultura:

- Solicitud por escrito en las oficinas del Servicio de Cultura, señalando la naturaleza de la actividad, duración y horario de la misma y número de participantes. Asimismo, se especificará en la solicitud la posible cesión de material (sillas, mesas…) o equipamiento (vídeo, pizarra…).
- Deberán respetar las condiciones establecidas en el artículo 4.2 de esta Normativa.
- Podrá cobrarse un canon de utilización, según criterio del Patronato y aprobado anualmente por el Ayuntamiento.

6.3 A la hora de adjudicación de espacios, tendrán prioridad los grupos y colectivos culturales ubicados y organizados en Zizur Mayor. Asimismo tendrán prioridad las actividades culturales sobre las de otro tipo.

4.4 Zigorrak Kultur Patronatuko zuzendaritza batzordeak ezarriko ditu, zentroko zuzendariak igorriko duen nahitaezko txostenaren bidez. Aipatu batzordeak hutsegitea neurtuko du eta horri dagokion zigorra ezarriko.

4.5 Ez larritzat jotako beste edozein hutsegite zentroko zuzendariak berak ebatziko du, Kultur Patronatuaren presidentea jakinaren gainean egonik.

## 5. kap. GUNE MOTAK:

5.1 Kultur Etxean hainbat gune bereiz daiteke, ezaugarrien arabera, maila hauetan sailkaturik:

- **1. MAILA: ZERBITZU IRAUNKORRAK**
  - A. Administrazio eremuak:
    - Atezaintza eta kudeaketa.
    - Bake epaitegia.
  - B. Liburutegi publikoa:
    - Orokorra.
    - Haurrena.
  - C. Taberna-Kafetegia.
- **2. MAILA: ERABILERA BAKARREKO GUNEAK**
  - A. Bileretarako aretoa.
  - B. C aretoa: Pintura tailerra.
- **3. MAILA: BERARIAZKO ERABILERAKO GUNEAK**
  - A. Antzokia.
  - B. Erakusketa aretoa.
- **4. MAILA: ERABILERA ANITZEKO GUNEA**
  - A. AB aretoa.
  - B. D aretoa.
  - C. E aretoa.

## 6. kap. ERABILPENA: Uzteko eta erabiltzeko irizpideak

6.1 Kultur Etxeko programazioa eta, behar denean, guneen erabilera zentroko zuzendariaren erantzukizuna izanen da.

6.2 Kultur Etxeko guneak uzteko, baldintza hauek ezarri dira:

- Kultur Zerbitzuko bulegoetan eskaera idatziz egin beharko da, jardueraren nondik norakoa, iraupena, ordutegia eta partehartzaile kopurua zehaztuta. Halaber, eskaeran izan litekeen materialaren lagapena zehaztuko da (aulkiak, mahaiak…) edo ekipamendua (bideoa, arbela…).
- Araudi honetako 4.2 artikuluan xedaturiko baldintzak errespetatu behar dira.
- Erabiltzeagatik, Patronatuaren beraren irizpidez eta Udalak urtero onartua izanik, kanon bat kobratzen ahalko da.

6.3 Guneak esleitzeko unean, Zizur Nagusian kokatu eta eraturiko kultur talde eta kolektiboek izanen dute lehentasuna. Halaber, kultur jarduerek beste motatako jardueren aurrean lehentasuna izanen dute.

6.4 Cuando las circunstancias lo determinen, podrán desarrollarse convenios de colaboración, entre el propio Patronato de Cultura y personas o grupos culturales y artísticos para la utilización de algunos espacios de la Casa de Cultura, fundamentalmente el anfiteatro.

6.5 Se podrán desarrollar actividades culturales mancomunadas con otros Ayuntamientos y prioritariamente con los de la Comarca de Pamplona. Dichos proyectos serán aprobados por la Junta Rectora del Patronato, con el condicionado expreso que se establezca.

6.6 Los criterios de cesión y uso de cada uno de los niveles expuestos, se regirán de la siguiente forma:

♦ **NIVEL 1: SERVICIOS PERMANENTES**

A. **Areas de Administración:** se destinarán dos áreas para uso exclusivo por parte de los Servicios de Conserjería y Juzgado de Paz. Se determinará un horario de atención al público. No son susceptibles de ser cedidos.

B. **Biblioteca Pública:** se destinarán dos áreas para uso exclusivo por parte de la Red de Bibliotecas del Gobierno de Navarra, quien será la que determine el horario de atención al público de los dos servicios (Biblioteca General y Biblioteca Infantil). Su uso será el relacionado con el fomento y dinamización de la lectura, así como de la información en sus distintos medios.

Asimismo, el Ayuntamiento de Zizur Mayor podrá ampliar el horario de apertura del servicio, si lo considera oportuno.

C. **Bar:** se plantea su uso desde la óptica de ofrecer un servicio a los diversos tipos de usuarios que pudieran darse:

1. Los usuarios de la Casa que acuden de forma habitual a actividades programadas a lo largo de la temporada.
2. Los espectadores o lectores que acuden puntualmente, bien al anfiteatro o bien a la sala de exposiciones o a la Biblioteca.
3. Cualquier persona que pudiera acudir a la Casa a informarse o a acompañar a algún participante en cursos (padres/madres…) o como punto de encuentro o tertulia.

Así pues, el horario deberá satisfacer a la diversa tipología de usuarios descritos anteriormente.

♦ **NIVEL 2: ESPACIOS DE USO EXCLUSIVO**

A. **Sala de Reuniones:** la finalidad de este espacio es la de servir como local de reuniones del Juzgado de Paz.

A su vez, se destinará también para otro tipo de reuniones que tuvieran que ver con el personal del Centro o representantes municipales:

- Reuniones del equipo de gestión del Centro.

6.4 Kultur Etxeko zenbait gune -antzokia, batez ere- erabiltzeko, Kultur Patronatuak berak eta kultur eta arte alorretako pertsonek edo taldeek, egoerak aginduta, lankidetza hitzarmenak egin ahal izanen dituzte.

6.5 Beste udalekin batean, batik bat Iruñerrikoekin, kultur jarduerak antolatzen ahalko dira. Patronatuko zuzendaritza batzordeak onetsi beharko ditu proiektu horiek, jarriko diren baldintzen arabera.

6.6 Azalduriko maila bakoitzeko guneak uzteko eta erabiltzeko irizpideak honako hauek izanen dira:

♦ **1. MAILA: ZERBITZU IRAUNKORRAK**

A. **Administrazio eremuak:** Atezaintza eta Bake Epaitegia Zerbitzuek ez bestek erabiltzeko bi gune egonen da. Jendaurreko ordutegia zehaztuko da. Guneak ez dira uztekoak.

B. **Liburutegi publikoa:** Nafarroako Gobernuko Liburutegi Sareak ez bestek erabiltzeko bi gune egonen da, eta hark zehaztuko du bi zerbitzuetako (Liburutegi orokorra eta Haurren liburutegia) jendaurreko ordutegia. Bere erabilerak irakurketaren sustapena eta dinamizazioarekin lotura izanen du, hala nola informazioarena baliabide desberdinetan.

Halaber, Zizur Nagusiko Udalak zerbitzuaren ordutegia luzatzen ahalko du, bidezko ikusten badu.

C. **Taberna:** Zerbitzua bertara litezkeen hainbat motatako pertsonei eskaintzea da asmoa:

1. Etxearen ohiko erabiltzaileei, hots, denboraldi osoan zehar egitarauko jardueretan parten hartzen dutenei.
2. Batzuetan antzokira, erakusketa aretora edo liburutegira joaten diren ikusle edo irakurleei.
3. Informazio eske, ikastaroren bateko partaideren bati laguntzera (gurasoak...) edo Etxea topagun edo tertuliagune hartuta bertaratzen direnei.

Horrela, bada, mota horietako erabiltzaileei egokia izanen litzaiekeen ordutegia egin beharko litzateke.

♦ **2. MAILA: ERABILERA BAKARREKO GUNEAK**

- A. **Bileretarako aretoa:** toki honen xedea da Bake Epaitegiaren bilera-gela izatea.

Era berean, zentroko langileekin edo udal ordezkariekin zerikusia duten bilerak egiteko ere erabiliko da:

- Taldearen bilerak.

Asimismo podrá cederse para reuniones de coordinación de colectivos socioculturales.

Queda limitado pues, cualquier otro tipo de uso.

B. **Sala C**: Taller de pintura: Este espacio se destina transitoriamente para el desarrollo de la actividad de pintura y dibujo artísticos. Se plantea, mientras tenga interés, como "Taller permanente", de tal forma que es susceptible de poder utilizarse en un horario amplio (mañana y tarde).

En este sentido no podrá cederse a otros colectivos, ni usarse para otros fines que los descritos anteriormente.

- **NIVEL 3: ESPACIOS DE USO ESPECIFICO**

A. **Anfiteatro:** Se destinará fundamentalmente como contenedor del programa municipal de difusión artística (música, teatro, danza, proyecciones…). Concretamente se programarán:

- Conciertos de música.
- Actuaciones teatrales y de danza.
- Proyecciones de cine o vídeo

Con la intención de procurar una mayor rentabilidad cultural y económica, la cesión de este espacio se contemplará desde una óptica comarcal, toda vez que se encuentren satisfechas las necesidades culturales de las entidades municipales. Bajo este prisma, podrá cederse la sala, o más concretamente el escenario por un espacio de tiempo determinado:

1) A grupos artísticos: Este tipo de cesiones se llevarán a cabo mediante acuerdo escrito, decidiéndose las fórmulas de compensación que se estimen oportunas. El Patronato de Cultura establecerá pautas generales a este respecto, aunque el Director podrá llegar a acuerdos puntuales en base al tipo de proyecto que se presente. Se procurará en todo momento que la ocupación del anfiteatro lo sea parcial, sólo de la escena, para posibilitar que pudieran desarrollarse actos culturales (conciertos, proyecciones, charlas…) en la sala, a pesar de encontrarse ocupado el escenario. No olvidemos que la sala, mediante el empleo del telón, permite la simultaneidad de usos.
2) Este espacio podrá cederse a su vez, para el desarrollo de otros usos socioculturales, no propiamente artísticos, tales como: conferencias, charlas o debates. Este tipo de acciones, si no fueran llevadas a cabo por el Ayuntamiento, se solicitarán por escrito y necesitarán de la correspondiente autorización del Director del Centro o de la Junta Rectora, según el caso.
3) El anfiteatro no será objeto de cesión, para cualquier otro tipo de uso no sociocultural, como por ejemplo una reunión vecinal, salvo por necesidad determinante (nº de asistentes). En todo caso, se deberá efectuar solicitud por escrito y abonar, si se aprobara ordenanza al respecto, la cuota de alquiler establecida al efecto por el Ayuntamiento de Zizur Mayor. A la hora de estipular este canon, se tendrá en cuenta si el colectivo es de Zizur o foráneo, con la intención de favorecer propuestas locales, mediante la discriminación de precios.

Halaber, kolektibo soziokulturalen koordinazio-bilerak egiteko uzten ahalko da.

Beraz, mugatzen da beste motatako erabilerarik.

B. **C aretoa**: Pintura tailerra: gune hau, aldi baterako, pintura eta marrazki artistikoan jarduteko erabiliko da. Interesa sortzen duen bitartean, "tailer iraunkorra" izan dadin planteatu da, eta, beraz, ordutegi zabalean (goizez eta arratsaldez) erabil daiteke.

Ondorioz, ezin beste kolektiboei utzi, ezta arestian aipaturiko xedeetatik kanpo erabili ere.

- **3. MAILA: BERARIAZKO ERABILERAKO GUNEAK**

A. **Antzokia:** batik bat arte zabalkundearen egitaraua (musika, antzerkia, dantza, proiekzioak...) burutzeko erabiliko da. Bertan hauek izan daitezke:

- Musika kontzertuak.
- Antzerki eta dantza emanaldiak.
- Zine eta bideo proiekzioak.

Bai kulturan bai ekonomian errentagarritasun handiagoa atera nahian, eta udal jarduerak behar bezala garatutakoan, eskualdea hartuko da kontuan gune hau emateko orduan. Ikuspegi horretatik, aretoa -edo, zehatzago, eszenatokia- epe baterako utzi ahal izanen da:

1) Talde artistikoei: uztea hitzarmen idatzien bitartez gauzatuko da eta ordain egokiak zehaztuko dira.
   Horri dagokionez, Kultur Patronatuak irizpide orokorrak xedatuko ditu, nahiz eta, zuzendaria aurkezten den proiektuaren motaren arabera, akordio puntualetara ailega daitekeen.
   Antzokian, eszenatokia bakarrik okupatzeko ahaleginak eginen dira, modu horretan, eszenatokia okupatuta egonda ere, kultur ekitaldiak (kontzertuak, proiekzioak, hitzaldiak...) aretoan burutu ahal izanen dira. Ez dezagun ahaz aretoak, oihalaren bitartez, aldi berean bi jarduera burutzeko aukera ematen duela.
2) Gune hau, era berean, berez artistikoak ez diren beste erabilera soziokultural batzuetarako ere uzten ahalko da, hitzaldiak, konferentziak edo eztabaidak egiteko, alegia. Ekitaldi horiek, baldin eta Udalak burutzen ez baditu, idatziz eskatuko dira eta, kasuaren arabera, zentroko zuzendariaren edo Zuzendaritza batzordearen onespena beharko dute.
3) Ez da utziko soziokulturala ez den beste ezertarako -auzokoen bilera baterako, kasu-, erabateko beharragatik ez bada (partehartzaile kopuru handia). Nolanahi ere den, idatziz eskatu beharko da eta, eskaera onetsiz gero, Zizur Nagusiko udalak ezarritako kuota ordaindu. Kanon hori erabakitzeko orduan, kolektiboa Zizurkoa ala kanpokoa den hartuko da kontuan, bertakoen proposamenak, prezioak bereiziz, bultzatzeko asmotan.

PATRONATO DE CULTURA
Zizur Mayor

KULTUR PATRONATUA
Zizur Nagusia

B. **Sala de Exposiciones y Conferencias:** Su uso preferentemente será para exposiciones, pudiendo acoger en dicha sala:

♦ exposiciones programadas por el municipio:
  a. de artistas locales.
  b. de artistas foráneos.

♦ exposiciones ofertadas desde:
  a. Instituciones Autonómicas (Gobierno de Navarra, Gobierno Vasco, etc.).
  b. Instituciones Comarcales (Mancomunidad…).
  c. Instituciones Estatales (Ministerio de Cultura…).
  d. Entidades privadas:
    - de índole popular.
    - de patrocinio comercial.

Se realizará un Plan de Exposiciones, que contará con una previsión mínima de 6 meses y máxima de 1 año, dando cabida a las distintas modalidades plásticas (pintura, escultura, fotografía, cerámica…)

Este espacio será susceptible de utilizarse para conferencias siempre que el mismo no se encuentre ocupado por una exposición. En todo caso se plantearían conferencias paralelamente a exposiciones, siempre que existiera complementariedad, y el desarrollo de la charla o el debate en la propia sala ayudara a una mejor comprensión de lo expuesto.

En el momento de ceder la sala a los distintos artistas, se llegará a un acuerdo con los mismos en base a los siguientes criterios:

❖ El Patronato de Cultura se compromete a:

1. La cesión gratuita del espacio, con la finalidad de que el autor exponga su obra.
2. La confección del catálogo o tarjeta, encargándose del diseño del mismo en el que figurará el logotipo de la Casa de Cultura (bilingüe). El formato será similar para todos, estudiándose casos especiales que por la trayectoria del artista, el Director del Centro crea necesario tener en cuenta.
3. El Conserje de la Casa de Cultura se encargará de la apertura y cierre de la sala, así como del control de la misma.

❖ Será obligación del artista:

1. El traslado y montaje de la obra.
2. El artista o la persona en quien éste delegue se encargará de la vigilancia de la sala.

Sin perjuicio de lo expuesto anteriormente, el Ayuntamiento de Zizur Mayor diseñará un "reglamento de utilización de la Sala de Exposiciones", mediante el cual dictará las condiciones básicas para el uso del espacio.

B. **Erakusketa eta konferentzietarako aretoa:** Nagusiki erakusketak eskaintzeko erabiliko da, hala nola:

♦ Udalerriak antolaturiko erakusketak:
  a. bertako artistenak.
  b. kanpoko artistenak.

♦ honako hauek eskainiriko erakusketak:
  a. Erakunde autonomikoak (Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza...).
  b. Eskualdeko erakundeak (Mankomunitatea…).
  c. Estatuko erakundeak (Kultur ministerioa…).
  d. Erakunde pribatuak:
    - herri erakundeak.
    - babes komertziala dutenak.

Gutxienez 6 hilabete eta gehienez urtebete iraunen duen erakusketa plan bat burutuko da, bere baitan plastika modalitate guztiei (pintura, eskultura, argazkigintza, zeramika, eta abarri) toki emanen diena.

Gune honetan konferentziak egin ahal izanen dira, baldin eta une berean erakusketarik ez bada. Hala ere, erakusketarekin bat etorriz eta hitzaldiak edo eztabaidak ikusgaia hobeki ulertzen lagunduz gero, aldi berean eginen lirateke konferentziak aretoan bertan.

Artistei aretoa uzteko orduan, akordioak eginen dira haiekin, honako irizpide hauek erabiliz:

❖ Kultur Patronatulak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Gunea dohainik utziko du, artistak bere obra erakus dezan.
2. Katalogoaren edo txartelaren enkargua eta diseinua, Kultur Etxeko logotipoa agertu beharko duena (elebiz). Antzeko formatoa izanen da denontzat, zentroko zuzendariaren aburuz, artistaren ibilbidea kontuan hartuta, bereziak diren kasuak Patronatuak aztertu beharko ditu.
3. Aretoa zabaltzea eta ixtea Kultur Etxeko atezainaren lanak izanen dira, baita Etxearen kontrola ere.

❖ Artistaren betebeharrak honako hauek izanen dira:

1. Obra eramatea eta muntatzea.
2. Erakusketariak edo beronek ordezkaturiko pertsonak aretoa zaintzeko ardura izanen du.

Arestian aipatutakoari kalterik egiten ez dela, Zizur Nagusiko Udalak "Erakusketa aretoaren erabilerarako araudia" diseinatuko du eta bertan gunea erabiltzeko oinarrizko baldintzak azalduko ditu.

PATRONATO DE CULTURA
Zizur Mayor
KULTUR PATRONATUA
Zizur Nagusia

- **NIVEL 4: ESPACIOS POLIVALENTES**

Definiremos como espacios polivalentes aquellos que puedan utilizarse para actividades diversas de forma consecutiva.

Se propone pues, un uso discrecional de los mismos. Dirigiremos hacia ellos la mayor parte de la demanda de salas para reuniones, cursos, etc. que pudieran proceder de los distintos grupos o colectivos tanto locales como foráneos.

**Sala AB y Sala D:** Tendrán un uso prioritario y específico, pero compatibilizándose esas actividades con otro tipo de demandas que pudieran surgir.

Zizur Mayor, marzo de 2012

- **4. MAILA: BALIO ANITZEKO GUNEAK**

Balio anitzeko guneak elkarren segidako jarduera desberdinak bere baitan onartzen dituztenak izanen dira.

Hautazko erabilera proposatzen da, beraz, gune hauetarako. Herriko edo kanpoko talde edo kolektiboek eskaturiko bilera, ikastaro e.a. gehientsuak gune hauetan izanen dira.

**AB aretoa eta D aretoa:** lehentasuna eta erabilera jakina izanen dute, baina sor daitezkeen beste jarduerekin tartekatuta.

Zizur Nagusia, 2012ko martxoa.